

DIRU- ITURRIAK



Proiektu hau aurrera eramateko zenbait diru-iturri nahitaezkoak izango dira. alde batetik, proiektua aurkeztu genuen eta Diputazioak diru-laguntza eman digu proiektua aurrera eramateko.

Bestalde Arantza Basagoiti eta Helena Espizua Eginarez Eginez elkartearen izenean ere proiektua babestea erabaki dute. elkarre honen denbora luzea darama Gasteizen aniztasun funtzionala duten pertsonen eskubideak aldarrikatzen instituzioetan zein kalean. Sexu hezkuntza eta sexuaren eskubidea askotan aldarrikatu dute eta horren bisibilizazioaren aldeko borrokan jarraitzen dute.

Diru-laguntza eta aportazioekin zenbait gasturi egin beharko diogu aurre proiektua martxan jartzeko (lokala, tailerrak, jostailuak, baliabide pertsonal zein materialak...). Ondoren, Diputazioan aurkeztu beharko dugu proiektuaren gastuak eta irabaziak.

Aurretik azaldu dugun moduan, sexu hezkuntza eta sexu eskubidea era naturalago batean ikustaraztea aldarrikatzen da. Gehienetan gure bezeroek ezin baitituzte haien beharrak asetu hirugarren pertsona baten laguntza ez badute. Beste leku batzuetan ez diete zerbitzu hauek eskeintzen ezta haien bizitza autonomoagoa eukitzeko edota sexualitateaz gozatzeko aukera ematen. Horregatik gure zerbitzuak hartzeko prest egongo liratezke.

